Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
Centros de Orientación, Emprendimiento, Acompañamiento e Innovación para el Empleo
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO
NAFAR LANSARE
SISTEMA NACIONAL DE EMPLEO

Marka pertsonala

Besteek **nola ikusten zaituzten** zure lanean eta zer gauza on esan dezaketen zutaz. **Marka pertsonalak lana aurkitzen laguntzen dizu,** zein trebetasun dituzun eta nor zaren erakusten duelako.

Onurak

Bereiztea: Antzeko profilak ugari diren merkatu batean, marka sendoa izateak nabarmentzeko aukera dakar.

Ikusgarritasuna: Laguntzaile eta errekrutatzaile posibleekiko esposizioa handitzen du

Ospea: lotua dago sektorean zu nola ikusten zaituzten, eta horrek eragina du lan aukeretan.

Konfiantza: Marka koherente eta benetako batek konfiantza sortzen du errekrutatzaileengan.

Nork bere burua ezagutzea:

Marka pertsonala eraikitzeko ariketak

Zerk egiten nau berezi nire lanbidean?
Zein dira nire trebetasun gakoak?

Aipatu zein diren zure trebetasunak

Eg.	O	Ek.	Em.
EGOERA	OZTOPOAK	EKINTZAK	EMAITZAK

Kontatu zure lorpenak metodotik, zure arrakasten istorioak garatzeko

Marka bat sortzeko elementuak



Balio-proposamena: Eskaintzen duzunaren eta zure berezitasunen laburpen txikia.

Entzuleak: Zehaztu zer motatako enpresa eta errekrutatzailerengana iritsi nahi duzun.

Komunikazio-kanalak: LinkedIn - Blogak edo portafolioak - Sare sozialak

Feedbacka: Eskatu lankideei iruzkinak egiteko, zure irudi profesionala doitze eta indartze aldera.

Nola komunikatzen duzu zure marka?

Komunikazio intentzioduna eta intentziorik gabea: Keinu, hitz, interakzio eta post bakoitzaren bidez, irudi bat proiektatzen dugu.

- **Sare sozialak**: Plazaratzen, komentatzen edo partekatzen duzun guztiak zure marka eraikitzen du. Profileko argazkiak, zure postaren sinadurak eta taldekako mezuek zure profesionaltasuna islatzen dute.
- **Posta eta mezuak**: Funtsezkoa da mezua ongi idatzia izatea, argia eta xehetasunekiko errespetuzkoa. Ez erabili helbide elektroniko edo erabiltzaile-izen informalik ingurune profesionaletan.
- **Eguneroko interakzioak**: Agur, adierazpen eta erantzun bakoitzaren ondorioa da zure irudia.

Kontaktu sareak

1. **Erabili sare sozial profesionalak** (LinkedIn)
Sortu profil erraz bat, zure lan esperientzia eta trebetasunak azaltzeko.
2**. Egon harremanetan zure kontaktuen sarearekin**
Mantendu harremana ezagutzen dituzun pertsonekin. Parte hartu zure lan-arloko taldeetan.
3. **Eskatu erreferentziak edo gomendioak**
Eskatu lankide edo nagusi ohiei zure aldeko gomendioa zabaltzeko eta zure lanaz ongi hitz egiteko

Saihestu beharreko akats arruntak

Sinestea marka pertsonal bat sare sozialekin bakarrik eraikitzen dela edo sare horietan egon ezean "ez dagoela". Sareetan duzun irudiaren eta bizitza profesionalaren artean koherentziarik ez erakustea.
Ez zaren norbait izan nahi izatea; zintzotasuna funtsezkoa da.

Sare eta ingurune profesionaletan zure irudia zaintzeko aholkuak

•**Argazki profesionala**: Adierazi segurtasuna eta konfiantza zure profileko irudian.

•**Eduki koherentea**: Partekatu zure ibilbidearekin bat datozen gaiak eta ez argitaratu pertzepzio negatiboa sor dezakeen edukirik.

•**Positibotasuna eta gardentasuna**: Mezu orok du garrantzia; proiektatu beti zintzotasuna, interesa eta profesionaltasuna.